

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Jendaurrean jartzea JEZaren 2019ko errolda

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaindu behar duten guztiei jakinarazten zaie ezen, iragarki hau argitaratzen den egunetik aurrera, zergadunen errolda hemen egongo dela ikusgai:

Asparreneko udaletxean: udal esparruko kuotak.

Zergadunek egoki jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote, errolda jendaurrean jarri eta 15 egun balioduneko epean, zerga kudeatzen duen erakundeari edo, bestela, Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari.

Araia, 2019ko uztailearen 1a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMENEZ